



Macau

Asiako Las Vegas erraldoia

Macauko penintsula txikia Asiako jokoaren gune bihurtu da urte gutxian, eta jokoaren negoziotik jasotako diru-sarreretan Las Vegasen beraren gainetik dago. Etengabe ari da hazten eta oraintsu arrantzale kolonia pobrea zena, munduko herrialde aberatsenetakoa bihurtzeko bidean da.

MARC MORTE

Argazkiak: Elena Senao / Marc Morte

MACAU HIRI ZAHARRAREN harrizko kaleetan, eliza katoliko ikusgarriak eta pastel koloreko luxuzko etxeek antzina portugaldarren kolonia izan zela erakusten dute. Zaila da imajinatzea zenbait kale igarota, edertasun horri munduko kasino handien neon argien distirak hartuko diola lekua. Nekazaritza eremuetatik iritsitako milaka txinatar turistek liluratuta begiratzen

dute dekoratu erakargarria, eta zaleek zoriona edo porrota ekarriko dieten jolas mahaietara jotzen dute. Macauko kasinoetan sartzea esperientzia ahaztezina da: zigarroen keak inguraturiko dekoratu aberatseko aretoak, gizonak dirutza jokoan dutela apustu egiten galtzak belaunetaraino jasota eta alkandorak zabalik, emakume zerbitzari jatorrak urrutiko hirietatik

datozen txinatar hunkituei jolas-makinen funtzionamendua azaltzen...

Macau arrantzaleen herri txiki bat zen antzina, Perlas ibaiaren ahoan, kostaldeko beste hainbaten antzera. Baina XVI. mendean portugaldarrak iritsi zirenean erabat aldatu zen egoera. Txinatar agintarien baimena jasota, urteek aurrera egin ahala aberasten joan zen merkataritza kolonia handia sortu zuten portugaldarrek. Macauko urrezko aroa holandar eta britainiarrek iristean amaitu zen, Macauri garrantzia kendu zioten kolonia berriak sortu baitziren. 1841ean gertatu zen azken kolpea, britainiarrek Hong Kong hartu zutenean, eta merkataria asko alboko koloniara joan zirenean. Macau gainbeheran eta ahanzturan murgildu zen. Kolonia 1999ko abenduaren 20an itzuli zioten Txinari, eta Portugalekin Hong Kongen patroia berbera negoziatu zuten: “herrialde bat, bi sistema”. Ildo horretan, Macauk autonomia du lege sisteman, indar polizialean, diru sisteman, mugetan eta immigrazioan. Azken urteetan Macauko aberastasuna asko handitu den arren, jokoak askoz ere lehenago bihurtu zen negozio bide, 1850ean, portugaldar agintariak legeztatu zutenean. Denbora askoan jokoak monopolioa izan zen, XX. mendearen azken erdian batez ere, Stanley Ho handikiak gidatutako Turismo eta Aisialdi Elkarteak (Sociedade de Turismo e Diversoes) negozio osoa kontrolatzen zuenean. 2001ean monopolioa hautsi egin zen, eta Macauko negozioak aprobetxatu nahi zuten atzerriko inbertitzaile handi asko sartu ziren, Wynn eta Sands amerikar kate handiak tartean. Kate

Jokoak portugaldar agintariak legeztatu zutenean bihurtu zen negozio bide, 1850ean. Denbora askoan jokoak monopolioa izan zen

Ezkerreko irudian, Macau Palace kasinoaren sarrera. Behekoan, haragi egosien denda bat.

horiek jolas-areto handiak sortu dituzte hemen, horietako hainbat Las Vegasko kasinoak baino handiagoak.

Jokoaren booma

Teresa kolonia garaiko portugaldar bakarretakoa da hemen, eta Turismo Ministerioarentzat egiten du lan. Hain zuzen turismoak gorakada nabarmena izan duela azaldu du: “2000n, Macau Txinari itzuli eta gutxira, 9 milioi bisitari izan ziren, 2007an 27 milioi eta 2008 honetan gehiago espero dituzte. Guztien gaitetik jokoak da Macauren erakargarritasun nagusia, baina kultur arloko turismoa bultzatzen saiatzen ari dira, etortzen direnek jokoaz gain, gure kultur ondarea ere bisita dezaten”. Ahalegin ahalegin, turistaren %50 inguru Txinatik datoz, eta %30 Hong Kongetik. Kasinoaren argi distiratsuek erakarritza etortzen dira gehienak, Macaun baino ez baitaude kasinoak baimenduta. Jokoaren negozioak galdetuta, haxe erantzun dit irribarrez: “Ez nau bereziki liluratsen, baina ezin dut ukatu jokoak ekarri duela aberastasuna Macaura, eta diru-sarrerak horiei esker egoerak hobera egin du”. Teresak dioten bezala, jokoaren negozioa da Macauko ekonomiaren oinarria; Macauko Gobernuaren diru-sarreraren %70 jokoaren gaineko tasetatik dator. Ekonomiaren hazkunde tasak ikaragarriak izan dira azken urteetan, bi digituko zifrak lortzeraino, eta bertakoak ez diren langileen mugimendua ere eragin dute eskulan handia behar zelako. Baina dena ez da distiratsua Macaun, datu ekonomikoak onak eta etorkizuneko iragarpenak baikorrak izan arren, herrialde aberatsenen per capita





Ezker-eskuin, Casino Lisboa (portugaldarren kolonia zeneko eragina nabaria da); eta opera emanaldia Taipako auzo zaharrean.

errenta erakusten duten datu ekonomiko hauen azpian, gaizki banatutako aberastasuna dago. Herritar askok batez bestekoaren azpitik dauden soldatak dituzte, eta bitartean, prezioek goraka jarraitzen dute. Era berean, eta Macau aberrira itzuli zenetik ahuldu egin ziren arren, triadek (mafia txinatarrek) kontrolatzen dute uhartean gertatzen den oro. “Egia da pobreak badaudela”, dio Teresak, “eta turismoaren negozioan lan egiten ez dutenek soldata txikiak dituztela bizirik irauteko, baina Gobernuak arazoak konpontzen saiatzen ari da, eta gizarte politikak bultzatu ditu: babestutako etxebizitzak edo laguntzak, esaterako. Denbora behar da, eta ziur nago egoera ekonomikoak bere bideari jarraitzen badio bizi-kalitatea hobetuz joango dela, zaila da aberastasuna ongi banatzea bat-batean iristen bada”.

Taipa eta Coloane

Macauko penintsulaz gain, Taipa eta Coloane uharteek osatzen dute lurraldea. Taipa hainbat zubi ikusgarri lotzen dute penintsulara. Hiri-gintza arloan garapen handia jasan du eta etxebizitza nahiz kasino eraikin handiak ditu. Uhartean barrena oinez goazela, kasino ikusgarri begira, Taipako auzo zaharra osatzen duten kale txikien gunea aurkitu dugu; Pat Tai jaingosaren omenezko festak ospatzen ari dira eta bizilaguenek

doako opera emanaldiez eta komunitate otorduez gozatzen dute.

Uhartearen hegoaldeko muturrean, itsasoari kendutako hainbat lurretan dago Macauko kasino handiena: The Venetian. Izenak berak erakusten duenez, eraikin multzo honek kanalen hiri mitikoa islatzen du. Bertan, kasinoaz gain, hotel handi bat dago, saltoki handi bat eta hainbat ikuskizun. Inguruan garabiak etengabe ari dira lanean kasino berriak eraikitzen, eta urrunean, Coloaneko lur zabalak ikus daitezke. Bake giro hori piraten babesleku izan zen antzina, eta zorionez oraindik ez dutenez ustiatu, bertan ez dago ez kasino ez hotel handirik. Coloane herriko kale txikietan beste inon baino hobeto ikus daiteke antzina nolakoa zen Macau. Denbora geratu egin dela dirudi, eta eguneroko bizi-modu eroa kilometro askora dago. Hemen, herritarrek itsasoari begira hizketan igarotzen dute denbora, eta haurrak kalean jolasten dira.

Urte gutxian, litekeena da kasinoek Coloane ere hartzea, eta egun lozorroan dagoen eremua eraikin handiz gainezka egotea. Baina bitartean, merezi du bake honekin gozatzu gogoeta egitea, lurraldeak joko-gune bihurtzeak dakartzan abantailez eta kalteez. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, erreportajeari buruzko diaporama.

ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com

Guikuri Nekazal Etxea

Urdulain, 1 • Tel: 945 464084
01158 Muria (Araba) • 015 782323
gulguri@easolnet.net • www.gulikuri.com